



## Teclon terminala

Erabiltzailearen eskuliburua  
Teclon terminalaren erabilera-gida



# Aurkibidea



<b>1. Instalazioa</b>	<b><u>4</u></b>
o Ezaugarriak	
o Telefonoaren deskribapena	
o Instalazioa	
<b>2. Funtzionamendua</b>	<b><u>6</u></b>
o Dei bat egitea	
o Markatutako azken telefono-zenbakia errepikatzea, eta pausa	
o Txirrina egokitzea	
o Entzungailuaren bolumena egokitzea	
o Zuzeneko memoriak (M1, M2, M3)	
o Zeharkako memoriak	
o Mute tekla	
o R tekla	
<b>3. Erroreen konponketa</b>	<b><u>8</u></b>
<b>4. Ezaugarri teknikoak</b>	<b><u>9</u></b>


# 1. Instalazioa

## Ezaugarriak.

- Tekla handiak.
- Tonu bidezko markaketa (DTMF).
- Txirrina egokitzeko aukera: altua, baxua.
- Entzungailuaren bolumena egokitzeko aukera: normala, altua.
- Markaturiko azken zenbakia errepikatzeko aukera.
- 3 zuzeneko memoria (M1, M2 eta M3).
- 10 zeharkako memoria.
- Mute: mikrofono mutua.
- R tekla: Zure telefono-konpainiaren zerbitzuetara sartzeko.

## Telefonoaren deskribapena.

1. Entzungailua
2. Mute Tekla. Mikrofonoa isilarazteko.
3. Mikrofonoa.
4. Entzungailuaren bolumen-doikuntza. H (altua), L (baxua).
5. Linea-kablearen ahokalekua.
6. ALMAC tekla. Telefono-zenbakiak memorietan gordetzeko.
7. Txirrinaren bolumenaren doikuntza. Altua  baxua .
8. Zuzeneko memoriak M1, M2, M3. Markaketa bizkorrekoak.
9. Zenbakizko teklatura.
10. RLL/P tekla. Markaturiko azken zenbakiaren errepikapena/pausa.
11. R Tekla. Zure telefono-konpainiaren zerbitzu gehigarrietarako sarbidea.
12. Argizko txirrin-adierazlea.
13. MEM. tekla. Zeharkako memoriarena.
14. Pilen gordelekua.
15. Bozgorailua.
16. Mikrotelefonoaren kablearen ahokalekua.
17. Mikrotelefonoaren kablearen ahokalekua.



## Instalazioa.

1. Lotu kable kizkurraren mutur bat entzungailuaren behealdean dagoen ahokalekura (17), eta lotu beste muturra oinarriaren behealdean, ezkerrean dagoen ahokalekura (16).
2. Lotu lineako kable lauaren mutur bat oinarriaren ahokalekura (5), eta beste muturra etxeko telefono-hartunera.

3. Jarri bi pila alkalino (LR03-AAA-1.5V motakoak), telefonoa denbora batez telefono-lineatik deskonektatua egon arren memorian sartutakoak gordetzea nahi baduzu.

## 2. Funtzionamendua

### Dei bat egitea.

Hartu mikrotelefonoa, entzun markatzeko gonbidapen-tonua, eta markatu nahi duzun telefono-zenbakia.

### Markatutako azken telefono-zenbakia errepikatzea, eta pausa.

Azkena markatu duzun zenbakira berriro deitu nahi baduzu, edo deitu duzunean okupatua bazegoen, mikrotelefonoa hartu eta sakatu "RLL/P" tekla. Nahi bestetan egin dezakezu hori. Pausa: Zenbakiak markatzean bi segundoko etena sar dezakezu, tekla hori sakatuta.

### Txirrina egokitzea.

Bolumena igotzeko, jarri kommutadorea (7) posizioan; eta bolumena jaisteko, berriz, posizioan.



### Entzungailuaren bolumena egokitzea.

Bolumena igotzeko, jarri kommutadorea (4) H posizioan; eta bolumena jaisteko, berriz, L posizioan.

### Zuzeneko memoriak (M1, M2, M3).

Modelo honek markaketa bizkorreko hiru telefono-zenbaki gordetzeko aukera ematen du. Maizen erabiltzen dituzunak gordetzea komeni da.

#### • Telefono-zenbakiak grabatzea:

- Hartu mikrotelefonoa, linea izateko.

- Sakatu ALMAC tekla; ondoren, sakatu grabatu nahi duzun telefono-zenbakia, eta, segidan, zenbaki hori gorde nahi duzun memoria-tekla (M1, M2 edo M3).

Adibidez: Hartu telefonoa, sakatu ALMAC, sakatu 945297028, eta sakatu M1. Zenbaki hori memorian grabatuko da, nahiz eta programatu bitartean operadorearen ahotsa aktibatatu.

• Telefono-zenbakiak grabatzea:

- Hartu mikrotelefonoa, linea izateko.
- Sakatu memoria-tekla (M1, M2, M3). Telefono-zenbakia automatikoki markatuko da.

Oharra: Telefonoa lineatik deskonektatzean, memoria guztietako datuak galduko dira pilarik ez badago.

## Zeharkako memoriak.

Modelo honek zeharkako hamar memoria ditu. Erabili, memorian hiru telefono-zenbaki baino gehiago grabatu nahi dituzunean. Aurrekoaren antzera egiten da.

• Telefono-zenbakiak grabatzea:

- Hartu mikrotelefonoa, linea izateko.
- Sakatu ALMAC tekla, eta, ondoren, grabatu nahi duzun zenbakia.
- Sakatu MEM tekla, eta, ondoren, telefono-zenbakia gordeko den tekla (0-9).

Adibidez: Hartu telefonoa, sakatu ALMAC, sakatu 945297028, sakatu MEM, eta sakatu 0.

• Memoriatik markatzea:

- Hartu mikrotelefonoa, linea izateko.
- Sakatu MEM tekla, eta telefono-zenbakia gorde den zenbakia (0-9).

Adibidez: Hartu telefonoa, sakatu MEM, eta sakatu 0.

Oharra: Telefonoa lineatik deskonektatzean, memoria guztietako datuak galduko dira pilarik ez badago.

### Mute Tekla. (2)

Mikrofonoa mututzen du. Tekla hori sakatua mantenduz, zurekin hizketan dagoen pertsonak ez du entzuten esaten duzuna. Askatu tekla, berriro entzun zaitzaten.

### R Tekla. (11)

Telefono-konpainiaren edo telefonogunearen zerbitzu gehigarrietarako sarbidea ematen du tekla horrek; zerbitzu gehigarri horiek izan daitezke, besteak beste, deiak desbideratzea, deia zain eta erantzungailua.

## 3. Erroreen konponketa

#### • TELEFONOA HARTZEAN EZ DA DEUS ERE ENTZUTEN

- Begiratu telefonoaren telefono-linearako lotura (5) eta etxeko hartunea ondo dauden.
- Begiratu kable kizkurraren loturak ondo dauden (16 eta 17).
- Begiratu instalazioa ondo dagoen, eta konektatu terminala zuzenean SAPera. Arazoak irauten badu, jakinarazi telefono-konpainiari

#### • TELEFONOAK EZ DU TELEFONO-ZENBAKIA MARKATZEN

- Begiratu zenbaki bakoitza sakatzean teklaren sakatze-tonua entzuten den. Hala bada, zure lineak ez du tonu bidezko markaketarik onartzen.

#### • TXIRRINA OSO BAXU ENTZUTEN DA

- Aldatu txirrinaren bolumena (7)



## 4. Ezaugarri teknikoak

- Isolamendu-erresistentzia minimoa, lurraren eta zati irisgarrien artean: 100 MW
- Zurruntasun dielektriko minimoa: 500V
- Itzulera-galerak > 14dB
- Multimaiztasun bidezko markaketaren kodeak, CCITT Q-ren arabera.
  - Igorpen-denbora: 100 ms % 5
  - Etenaldia: 95 ms % 5
- Irekiera tenporizatuaren iraupena: 100ms
- Dei-seinalearen maila akustikoa > 70dB

### Kontuz

- Irakurri jarraibide hauek telefonoa erabili aurretik.
- Babestu telefonoa uretik eta hezetasunetik.
- Ahal dela, ez instalatu telefonoa oso beroak edo hotzak diren lekuetan, edo telebista, irrati edo bestelako tresna elektrikoaren ondoan.
- Ez jarri zuzenean eguzki-argitan.
- Garbitzeko, erabili zapi heze bat.
- Ez erabili inoiz aerosolik garbitzeko, zuloetan sartu eta tresna honda baitezakete